



Lehendakaria/Presidente

Juan Ramón Ciprián Ansoalde

Kidea/Vocal

M^a Aranzazu Arana Learte

Idazkari-Kidea/Vocal Secretaria

María Yeregui Hernández

Resolución 1/2021 ebazpena

Recurso 4/2018 errekurtsua

Bidaiarien herriarteko garraio erregularreko «Tolosa, N-1 eta Buruntzaldea eta Donostiako loturak» izeneko emakida kontratuaren baldintza agirien aurka (Diputatuen Kontseiluaren 2018ko uztailaren 24ko erabakiaz onartuak) COMPAÑÍA DEL TRANVÍA ELÉCTRICO DE SAN SEBASTIAN A TOLOSA SA enpresak (aurrerantzean TSST) aurkeztutako kontratazio arloko errekurtsu berezian, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboa, gaurko egunean burututako saioan, gorago adierazi diren kideak bertan zirela, aho batez onartu du ondorengo erabakia

En el recurso especial en materia de contratación interpuesto por la COMPAÑÍA DEL TRANVÍA ELÉCTRICO DE SAN SEBASTIÁN A TOLOSA, S.A. (en adelante, TSST) contra los pliegos del contrato de la concesión del servicio público de transporte de viajeros interurbano denominada “Tolosa, N-1 y Buruntzaldea y sus conexiones con San Sebastián”, aprobados por Acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 24 de julio de 2018, el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada en el día de la fecha, con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

AURREKARIAK

LEHENA.- 2018ko abuztuaren 27an Auzitegiaren erregistroan aurkeztutako idatziaren bidez, TSSTk kontratazio arloko errekurtsu berezia aurkeztu zuen ebazpen honen goiburukoan aipatzen diren baldintza agirien aurka.

BIGARRENA.- Hurrengo egunean, Auzitegiak ofizioa bidali zion Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuari, errekurtsuaren kopia helaraziz, eta eskatuz espedientea bera eta errekurtsuari nahiz errekurtsuan eskatzen zen kautelazko neurriari buruzko txostena. Hori guztia irailaren 21ean sartu zen Auzitegiaren erregistroan.

HIRUGARRENA.- Auzitegi honek 2018ko urriaren 1ean emandako ebazpenaren bidez, eten egin zen kontratazio prozeduraren izapidetzea, proposamenak aurkezteko epearen amaieratik errekurtsu hau ebatzi arte.

ANTECEDENTES DE HECHO

PRIMERO.- Mediante escrito presentado en el registro del Tribunal el día 27 de agosto de 2018, TSST interpuso recurso especial en materia de contratación contra los pliegos referidos en el encabezamiento de esta resolución.

SEGUNDO.- Al día siguiente el Tribunal dirigió oficio al Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio remitiéndole copia del recurso y reclamándole el expediente y el correspondiente informe acerca del recurso y de la medida cautelar que en él se solicitaba. Todo lo cual tuvo entrada en el registro del Tribunal el día 21 de septiembre.

TERCERO.- Mediante Resolución de este Tribunal de 1 de octubre de 2018 se suspendió la tramitación del procedimiento de contratación desde la finalización del plazo de presentación de proposiciones hasta que se resolviera el recurso.



LAUGARRENA.- Urriaren 15ean, data horretan amaitzen baitzen proposamenak aurkezteko epea, Auzitegi hau Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuari zuzendu zitzaion, lizitazioa aurkeztu ziren lizitatuzaileen nortasunari buruzko informazioa eskatuz, errekurtsoaren berri emateko.

Eskaera horri erantzunez, departamentuak adierazi zuen lizitatuzaile hauek aurkeztu zituztela eskaintzak:

- TSST – LA HISPANO IGUALADINA – CUADRABUS.
- AUTOMÓVILES LA ALCOYANA S.A.
- TRANSITIA – NEX CONTINENTAL.
- TRANSPORTES PESA – PESA BIZKAIA.

BOSGARRENA.- Kontuan hartuta 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak (SPKL), 56.3 artikuluan xedatutakoa, Auzitegiak errekurtsoaren berri eman zien lizitatuzaileei, eta bost egun balioduneko epea eman zien alegazioak aurkezteko.

Azaroaren 6an, TSST – LA HISPANO IGUALADINA – AUTOBUSES CUADRA enpresa elkarteko ordezkariak alegazioen idatzi bat aurkeztu zuen, errekurtsoa ezestea eskatuz, lizitazioaren baldintzak zuzenbidearen araberakoak direla ulertzen baitzuen.

SEIGARRENA.- Urtarrilaren 29ko 3/2019 Ebazpenez, Auzitegi honek errekurtsoa amaitutzat jo zuen baliogabe izateagatik eta esleipen-prozeduraren zuhurtziaz indargabe uztea kendu egin zuen.

ZAZPIGARRENA.- Ebazpen horren kontra, TSST-k 175/2019 administrazioarekiko auzien errekurtsoa ipini zuen, Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiak baietsi egin zuena 2020ko urriaren 2ko epaian, zeinak errekurritutako

CUARTO.- El 15 de octubre, fecha en la que finalizaba el plazo de presentación de proposiciones, el Tribunal se dirigió al Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio en solicitud de información sobre la identidad de los licitadores que las hubieran presentado, a efectos de darles traslado del recurso.

En respuesta al requerimiento el departamento informó que habían presentado oferta los siguientes licitadores:

- TSST – LA HISPANO IGUALADINA – CUADRABUS.
- AUTOMÓVILES LA ALCOYANA S.A.
- TRANSITIA – NEX CONTINENTAL.
- TRANSPORTES PESA – PESA BIZKAIA.

QUINTO.- De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 56.3 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (LCSP), el Tribunal dio traslado del recurso a los licitadores concediéndoles un plazo de cinco días hábiles para formular alegaciones.

El 6 de noviembre la representante de la agrupación TSST – LA HISPANO IGUALADINA – AUTOBUSES CUADRA presentó escrito de alegaciones en el que solicitaba la desestimación del recurso por entender que las condiciones de la licitación se ajustaban a Derecho.

SEXTO.- Por Resolución 3/2019, de 29 de enero, este Tribunal declaró terminado el recurso por desistimiento y levantó la suspensión cautelar del procedimiento de adjudicación.

SÉPTIMO.- Frente a dicha resolución TSST interpuso el recurso contencioso-administrativo 175/2019, el cual fue estimado por sentencia del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco de 2 de octubre de 2020, que anuló la resolución



ebazpena bertan behera utzi eta errekurtsoaren prozedura hura ebazteko errekurritutako egintzaren aurreko unera atzeratzeko agindu baitzuen.

ZORTZIGARRENA.- 2020ko abenduaren 9an Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiaren ofizioa jaso zen, jadanik irmoa zen epai horren lekukotza igorritz, betearazte aldera, ebazpen honen bidez egiten dena.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

Errekurtsoaren onargarritasuna

LEHENA.- Errekurtso berezi hau zerbitzuen emakida kontratu baten baldintza agirien aurka jarri da, eta emakida kontratu horren balio zenbatetsia 211.420.802,08 euro da.

Beraz, errekurritutako agirien aurka kontratazio arloko errekurtso berezia jar daiteke, hala xedatzen baita SPKLren 44. artikulua 1.c) eta 2.a) apartatuetan.

Errekurtso horren berri izateko eskumena Auzitegi honi dagokio, irailaren 28ko kontratazio arloko errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboa sortu eta arautzeko 24/2010 Foru Dekretuaren 2.1 artikuluan esleitzen baitzaio.

BIGARRENA.- Errekurtsoa SPKLk 50.1.b) artikuluan aurreikusten duen hamabost egun balioduneko epearen barruan aurkeztu da, kontuan hartzen bada lizitazio iragarkia eta agiriak 2018ko abuztuaren 3an argitaratu zirela Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontratatzailearen profilean, Euskadiko Kontratazio Publikoko Plataforman.

HIRUGARRENA.- Errekurtsogileak badu SPKLren 48. artikuluan eskatzen den legitimazioa errekurtso hau aurkezteko, bere xede soziala baita zerbitzuak ematea, eta zerbitzu horiek kontratuaren objektua osatzen duten prestazioak baitira; hori horrela, berme guztiekin parte hartu nahi du deitu den lizitazioan, errekurtsoaren

recurrída y ordenó retrotraer el procedimiento de recurso al momento anterior al acto recurrido para la resolución del mismo.

OCTAVO.- El 9 de diciembre de 2020 se recibió el oficio del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco remitiendo el testimonio de dicha sentencia, ya firme, para su cumplimiento, a lo cual se procede mediante la presente resolución.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Admisibilidad del recurso

PRIMERO.- Este recurso especial se interpone contra los pliegos de un contrato de concesión de servicios cuyo valor estimado asciende a 211.420.802,08 euros.

Por tanto, los pliegos recurridos son susceptibles de recurso especial en materia de contratación por así disponerlos los apartados 1.c) y 2.a) del artículo 44 LCSP.

La competencia para conocer del recurso corresponde a este Tribunal, al que le viene atribuida por el artículo 2.1 del Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.

SEGUNDO.- El recurso se ha interpuesto dentro del plazo de quince días hábiles previsto en el artículo 50.1.b) LCSP, si se tiene en cuenta que el anuncio de licitación y los pliegos se publicaron en el perfil de contratante de la Diputación Foral de Gipuzkoa, alojado en la Plataforma Contratación Pública en Euskadi, el día 3 de agosto de 2018.

TERCERO.- Concorre en la recurrente la legitimación exigida en el artículo 48 LCSP para interponer el presente recurso, pues se trata de una mercantil cuyo objeto social es prestar servicios que constituyen las prestaciones objeto del contrato, y, según afirma en el escrito de interposición, pretende concurrir con garantías a la



idatzian adierazten duenaren arabera.

Aurrekariak

LAUGARRENA.- Kontratazio espediente honen aurrekaria da Diputatuen Kontseiluak 2015eko urtarrilaren 27an onartutakoa, zeinaren objektua baitzen Tolosa, N-1, Buruntzaldea eta Donostiako loturak izeneko bidaiarien garraio publiko erregularreko zerbitzuak eskaintzeko emakida, erabakian bertan onartutako proiektuaren arabera. Horren lizitazio iragarkia urtarrilaren 28an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Bi proposamen aurkeztu ziren: bat AUTOBUSES GARAYAR SA, HIJOS DE ANTONIO AREIZAGA SA eta COMPAÑÍA DEL TRANVÍA ELÉCTRICO DE SAN SEBASTIÁN A TOLOSA SA enpresek elkarrekin aurkeztua, eta bestea NEX CONTINENTAL HOLDINGS SLU eta TRANSITIA SL enpresek aurkeztua.

Kontratua adjudikatu aurretik, Auzitegi honek martxoaren 23ko 5/2015 Ebazpena eman zuen. Ebazpen horren bidez baietsi egin zen AUTOBUSES BETOÑO SL enpresak jarritako kontratazio arloko 3/2015 errekurtsu berezia; hori horrela, indarrrik gabe utzi zen kontratuaren administrazio klausula partikularren agiriko karatulan linea erregularreko zerbitzuen prezioa balioesteko aurreikusten zen formula, eta, ondorioz, baita lizitazio prozedura osoa ere.

Ebazpen hura berretsi egin zuen Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salak 2016ko urriaren 13an emandako epaiak, ezetsi egin baitzuen 280/2015 errekurtsu arrunta, AUTOBUSES GARAYAR SA, HIJOS DE ANTONIO AREIZAGA SA eta COMPAÑÍA DEL TRANVÍA ELÉCTRICO DE SAN SEBASTIÁN A TOLOSA SA enpresek aurkeztua.

Donostialdea mendebaldeko hiru emakidak iraungita dauden arren, horien gehieneko indarraldia amaitu delako, bitartean, eta kontuan

licitación convocada.

Antecedentes

CUARTO.- El presente expediente de contratación tiene como antecedente el aprobado por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 27 de enero de 2015, que tenía por objeto la concesión del servicio público de transporte interurbano de viajeros denominada “Tolosa, N-1, Buruntzaldea y sus conexiones con San Sebastián” con arreglo al proyecto aprobado por el propio acuerdo, cuyo anuncio de licitación fue publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 28 de enero.

Se presentaron dos proposiciones, una de ellas formulada conjuntamente por las empresas AUTOBUSES GARAYAR S.A., HIJOS DE ANTONIO AREIZAGA S.A. y COMPAÑÍA DEL TRANVÍA ELÉCTRICO DE SAN SEBASTIÁN A TOLOSA S.A., y la otra por las empresas NEX CONTINENTAL HOLDINGS S.L.U. y TRANSITIA S.L.

Antes de que se procediera a la adjudicación del contrato, este Tribunal dictó Resolución 5/2015, de 23 de marzo, por la que, estimando el recurso especial en materia de contratación 3/2015 interpuesto por AUTOBUSES BETOÑO S.L., anuló la fórmula de valoración del precio de los servicios lineales regulares prevista en la carátula del pliego de cláusulas administrativas particulares del contrato, y, por tanto, la totalidad del procedimiento de licitación.

Aquella resolución fue confirmada por sentencia dictada el 13 de octubre de 2016 por la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, que desestimó el recurso ordinario 280/2015 interpuesto por AUTOBUSES GARAYAR S.A., HIJOS DE ANTONIO AREIZAGA S.A. y COMPAÑÍA DEL TRANVÍA ELÉCTRICO DE SAN SEBASTIÁN A TOLOSA S.A.

Entre tanto, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 24.2 de la Ley del Parlamento Vasco 4/2004, de 18 de marzo, de Transporte de Viajeros



hartuta Eusko Legebiltzarraren 4/2004 Legeak, martxoaren 18koak, Errepideko Bidaiari Garraioarenak, 24.2 artikuluan xedatutakoa, enpresa hauek jarraitu zuten emakida horietako bidaiarien herriarteko garraio zerbitzuak ematen:

* Pikoaga - Hernani - Donostia; Andoain - Urnieta - Donostia eta Andoain - Ospitaleak, AUTOBUSES GARAYAR SA enpresak.

* Hernani - Donostia, HIJOS DE ANTONIO AREIZAGA SA enpresak.

* Zubieta - Lasarte-Oria - Donostia; Tolosa - Andoain - Lasarte-Oria - Donostia; Asteasu - Tolosa eta Asteasu - Donostia, COMPAÑÍA DEL TRANVÍA ELÉCTRICO DE SAN SEBASTIÁN A TOLOSA SA enpresak.

Izapide egokiak egin ondoren, Diputatuen Kontseiluaren 2018ko uztailaren 10eko erabakiaren bidez Tolosa, N-1, Buruntzaldea eta Donostiako loturak izeneko bidaiarien garraio publiko erregularreko zerbitzuak eskaintzeko emakida proiektu berria onartu zen. Proiektu horrek emakida bakarrean biltzen ditu lehengo hiru emakidetako zerbitzu guztiak.

Azkenik, Diputatuen Kontseiluaren 2018ko uztailaren 24ko erabakiaren bidez kontratuaren kontratazio espedientea, administrazio klausula partikularren agiria eta preskripzio teknikoen agiria onartu ziren, eta lizitazioa prozedura irekiaren bidez zabaltzea xedatu zen.

Baldintza agiri horien aurka, TSSTk kontratazio arloko errekurtso berezi hau jarri zuen, eta bertan eskatu zuen baldintza agirien erabateko deuseztasuna deklaratzeko edo, bestela, deuseztagarritasuna deklaratu, lizitazioa baliogabetu eta salatutako irregulartasunak izango ez dituen lizitazio berri bat abiaraztea.

por Carretera, los servicios de transporte interurbano de viajeros correspondientes a las tres concesiones existentes en la comarca Donostialdea Oeste, todas ellas extinguidas por haber expirado el plazo máximo de vigencia, seguían prestándose por los siguientes operadores:

* Servicios Pikoaga – Hernani - San Sebastián; Andoain – Urnieta - San Sebastián y Andoain - Ciudad Sanitaria, prestados por la empresa AUTOBUSES GARAYAR S.A.

* Servicios Hernani - San Sebastián, prestados por la empresa HIJOS DE ANTONIO AREIZAGA S.A.

* Servicios Zubieta - Lasarte-Oria - San Sebastián; Tolosa – Andoain - Lasarte-Oria - San Sebastián; Asteasu - Tolosa y Asteasu – San Sebastián, prestados por la empresa COMPAÑÍA DEL TRANVÍA ELÉCTRICO DE SAN SEBASTIÁN A TOLOSA S.A.

Previos los trámites oportunos, por acuerdo de 10 de julio de 2018 el Consejo de Gobierno Foral aprobó el nuevo proyecto de la concesión del servicio público de transporte interurbano de viajeros denominada “Tolosa, N-1 y Buruntzaldea y sus conexiones con San Sebastián”, que viene a integrar en una sola los servicios comprendidos en las tres antiguas concesiones.

Finalmente, por acuerdo de 24 de julio de 2018 el Consejo de Gobierno Foral aprobó el expediente de contratación, los pliegos de cláusulas administrativas particulares y los de prescripciones técnicas del contrato, y dispuso la apertura de la licitación por el procedimiento abierto.

Frente a los pliegos TSST interpuso el presente recurso especial en materia de contratación con la pretensión de que se declare la nulidad de pleno derecho de los mismos o, subsidiariamente, su anulabilidad, se deje sin efecto la licitación y se inicie una nueva en la que no existan las irregularidades denunciadas.



Baldintza agirien aurkako errekurtoa jarri du, baita ere, ASOCIACIÓN EMPRESARIAL DE TRANSPORTES INTERURBANOS DE VIAJEROS EN AUTOBUSES DE GIPUZKOA (AVITRANS) elkarteak; errekurto hori (6/2018) ezetsi egin zuen 2019ko urtarrilaren 18ko 2/2019 Ebazpenak.

También los recurrió la ASOCIACIÓN EMPRESARIAL DE TRANSPORTES INTERURBANOS DE VIAJEROS EN AUTOBUSES DE GIPUZKOA (AVITRANS), cuyo recurso 6/2018 fue desestimado por Resolución 2/2019, de 18 de enero.

Gatazkaren planteamendua

BOSGARRENA.- TSSTk aurkaratze arrazoi hauek adierazi ditu:

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1370/2007 Erregelamendua, 2007ko urriaren 23koak, trenbide eta errepide bidezko bidaiaren garraio publikoko zerbitzuei buruzkoak, 7. artikuluan xedatutakoa urratzen da, lizitazio iragarkia ez baita epe barruan argitaratu Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean.

- SPKLren 99.3 artikulua urratzen da, kontratua lotetan ez banatzea ez dagoelako arrazoituta.

-SPKLren 74 eta 116.4 artikulua urratzen dira, eskatzen den kaudimen ekonomiko eta finantzarioa arrazoitu gabea eta neurritz kanpoko delira irizten baitu.

-2001eko urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak onartutako Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorreko 24. artikulua urratzen da, taldean parte hartzen duten enpresen kaudimena haztatzeke erabiltzen den moduagatik.

-SPKLren 145.5 artikulua urratzen da, proposamen ekonomikoak balioesteko modua akastuna delako.

-SPKLren 145.5 artikulua urratzen da, lizitatuzaileek aurkeztuko dituzten eskaintza ekonomikoak aurreikusgarriak direlako, eskaintzen balioespenean asetasun irizpidea ezartzen baita.

- SPKLren 145.4. artikulua urratzen da, proposamen ekonomikoak balioesteko irizpidea

Planteamiento de la controversia

QUINTO.- TSST aduce los siguientes motivos de impugnación:

- Vulneración del artículo 7 del Reglamento 1370/2007 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 23 de octubre de 2007, sobre los servicios públicos de transporte de viajeros por ferrocarril y carretera, debido a la ausencia de publicación en plazo del anuncio de licitación en el Diario Oficial de la Unión Europea.

- Vulneración del artículo 99.3 LCSP por falta de motivación de la no división del contrato en lotes.

- Vulneración de los artículos 74 y 116.4 LCSP por considerar injustificada y desproporcionada la solvencia económica y financiera exigida.

- Vulneración del artículo 24 del Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas aprobado por Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre, por la forma en que se pondera la solvencia de las empresas que concurran en agrupación.

- Vulneración del artículo 145.5 LCSP por la defectuosa forma de valoración de las propuestas económicas.

- Vulneración del artículo 145.5 LCSP por la previsibilidad de las ofertas económicas a presentar por los licitadores, al establecerse un criterio de saciedad en la valoración de las mismas.

- Vulneración del artículo 145.4 LCSP por defectuosa precisión del criterio de valoración de



zehatza ez delako.

-SPKLren 106 artikulua, behin-behineko bermea eskatzea ez dagoelako arrazoituta.

-SPKLren 204 artikulua, kontratuaren aldaketetarako aurreikusitako muga ez delako betetzen.

-SPKLren 130 artikulua, subrogatu behar diren langileei aplikatzekoa zaien hitzarmena ez delako adierazten.

-SPKLren 214 artikulua, kontratuaren lagapenerako eskatzen diren baldintzak ez direlako ondo zehazten.

-Preskripzio teknikoaren agiriko 27 eta 28.4 klausuletan ez da jaso eskaintza bat aurkezteko beharrezkoa den informazioa.

-Preskripzio teknikoaren agiria ez da zuzena, erregaitan aurreztutakoa kostuen egituran bi aldiz egozterakoan.

-Preskripzio teknikoaren agiria ez da zuzena, kostuen egitura eta instalazio finko propioak amortizatzearen ondorioak konfiguratzekoan.

SEIGARRENA.- Departamentuko idazkari teknikoak eta Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuko buruak txosten bana egin dute; bertan aurkaratze arrazoi guzti-guztiak aztertzen dituzte, eta errekurtsoa ezestea eskatu dute.

Errekurtso hau eta AVITRANSEk aurkeztutakoa lizitazioan eskaintza aurkeztu zuten lau lizitatzaillei helarazi ondoren, alegazioak aurkeztu dituen bakarra TSST errekurtsogileak LA HISPANO IGUALADINA eta AUTOBUSES CUADRAREkin batera osatzen duen enpresa elkarte da hain zuzen.

Alegazioan dio, hasteko, «*enpresa elkarte honek, entitate kolektibo gisa eta elkarteko kideen posizio partikularra alde batera utzita, lizitazioa arautzen duten baldintza agirien aurka jarri diren errekurtsoen kontra*

las propuestas económicas.

- Vulneración del artículo 106 LCSP por falta de motivación de la exigencia de una garantía provisional.

- Vulneración del artículo 204 LCSP por incumplimiento del límite legal previsto para las modificaciones del contrato.

- Vulneración del artículo 130 LCSP por falta de indicación del convenio colectivo aplicable al personal a subrogar.

- Vulneración del artículo 214 LCSP por incorrecta precisión de los requisitos exigidos para la cesión del contrato.

- Ausencia en las cláusulas 27 y 28.4 del pliego de prescripciones técnicas de la información necesaria para presentar una oferta.

- Corrección del pliego de prescripciones técnicas al imputar dos veces el ahorro de combustible en la estructura de costes.

- Corrección del pliego de prescripciones técnicas al configurar la estructura de costes y las consecuencias de amortizar instalaciones fijas propias.

SEXTO.- En sendos informes del Secretario Técnico del departamento y de la Jefa del Servicio de Movilidad y Transporte se examinan todos y cada uno de los motivos de impugnación y se solicita su desestimación.

Trasladado el recurso y el interpuesto por AVITRANS a los cuatro licitadores que habían presentado oferta, la única que formuló alegaciones fue, precisamente, la agrupación de la que, junto con LA HISPANO IGUALADINA y AUTOBUSES CUADRA, forma parte la recurrente TSST.

Empieza señalando que “*esta agrupación empresarial, como entidad colectiva y más allá de la posición particular de sus miembros, se posiciona en contra de los recursos interpuestos contra los pliegos rectores de la licitación*”.



agertzen dela». Jarraitzen du esanez «TSST – LA HISPANO IGUALADINA – CUADRABUS enpresa elkarteak proposamen lehiakor bat egin ahal izan duela, eta espero duela lizitazioa berrabiarazi eta behar bezala gauzatu ahal izatea».

Ondoren, errekurtsoaren zioak baztertzeko arrazoiak eman ondoren, enpresa elkartearen idatzia amaitzen da esanez «4/2008 errekurtsoak oinarritzat hartzen dituen arrazoietatik batek ere ez duela justifikatzen lizitazioa prestatzerakoan erabili ziren terminoak zuzenbidearen araberrakoak ez direnik, eta aplikatzekoa den araudi sektoriala nahiz sektore publikoko kontratuen arloan indarrean dagoen legedia betetzen ez direnik. Hori horrela, enpresa elkarte honen iritziz ezetsi egin behar dira erabat prozesu honetan aurkeztu diren errekurtso bereziak (...), lizitazioa prestatzeko kontuan hartu ziren baldintzek betetzen baitituzte lizitazioetan parte hartzeko askatasunaren printzipioa eta lehiakideen arteko diskriminaziorik ezaren eta tratu-berdintasunaren printzipioa; eta bermatzen baitute Buruntzaldea eskualdean herriarteko mugikortasun zerbitzuak kontratatzeko dirufuntsak efizientziaz erabiliko direla, lehia askea babestuz eta ekonomiaren aldetik onuragarriena den eskaintza hautatuz».

Azkenik, idatzian eskatzen da ezetsi daitezela errekurtsoak, «berretsiz zuzenbidearen araberrako baldintzetan gauzatu dela lizitazioa».

Lizitazioa alde aurretik EBAO aldizkarian iragartzeari buruzkoa

ZAZPIGARRENA.- Aurkatzearen lehen arrazoiaren errekurtsogileak alegatzen duenez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2007ko urriaren 23ko 1370/2007 zenbakidun Erregelamenduko (CE) 7.2. artikuluan, bidaiariak trenbidez eta errepidez garraiatzeko zerbitzu publikoei buruzkoan, eta Kontseiluaren 1191/69 eta 1107/70 zenbakidun Erregelamenduak (CEE) indargabetzekoan, aurretiko iragarkia EBAO aldizkarian gutxienez lizitazioaren prozedura abiatu baino urtebete lehenago argitaratzeko eskakizuna urratu egin da; bere ustez, hori lizitazioaren baliogabetasunari dagokion akatsa da, SPKLko 39. artikuluan eta Herri Administrazioen Administrazioaren Jardunbide Erkideei buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 47. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Añade que “la agrupación TSST – LA HISPANO IGUALADINA – CUADRABUS ha podido elaborar una proposición competitiva y confía que la licitación pueda reanudarse y sustanciarse debidamente”.

A continuación, después de razonar su rechazo de los distintos motivos del recurso, el escrito de la agrupación concluye diciendo que “ninguno de los motivos en los que se fundamenta el recurso 4/2018 permite llegar a considerar que los términos en los que se preparó la licitación no se ajusten perfectamente a Derecho y que cumplan tanto la normativa sectorial aplicable como la normativa de contratación del sector público en vigor. Así las cosas, en opinión de esta agrupación empresarial procede que se desestimen íntegramente los recursos especiales interpuestos (...), dado que las condiciones en las que quedó conformada la licitación se ajustan a los principios de libertad de acceso a las licitaciones, no discriminación e igualdad de trato entre los licitadores y asegura una eficiente utilización de los fondos destinados a la prestación del servicio de movilidad interurbana en la comarca de Buruntzaldea, salvaguardando la libre competencia y la selección de la oferta económicamente más ventajosa”.

Por último, en el suplico del escrito se solicita la desestimación de los recursos, “confirmando que las condiciones en las que se ha acabado sustanciando la licitación se ajustan a Derecho”.

Sobre el anuncio previo de la licitación en el DOUE

SÉPTIMO.- En el primer motivo de impugnación la recurrente alega que se ha vulnerado la exigencia de publicar en el DOUE, con al menos un año de antelación al inicio del procedimiento de la licitación, el anuncio previo al que se refiere el artículo 7.2 del Reglamento (CE) nº 1370/2007 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 23 de octubre de 2007, sobre los servicios públicos de transporte de viajeros por ferrocarril y carretera y por el que se derogan los Reglamentos (CEE) nº 1191/69 y (CEE) nº 1107/70 del Consejo; lo que constituye, en su opinión, un vicio de nulidad de la licitación, de acuerdo con lo dispuesto por los artículos 39 LCSP y 47 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.



Aipatu Erregelamenduko 7.2. artikuluan xedatzen denez:

“2. Eskumeneko agintaritzak bakoitzak dagozkion neurriak hartuko ditu, Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean gutxienez datu hauek argitara daitezzen, beranduenera lizitazioaren prozedura hasi baino urtebete lehenago edo esleipen zuzena baino urtebete lehenago:

- a) eskumeneko agintaritzaren izena eta datuak;*
- b) aintzatetsitako esleipen mota;*
- c) esleipenarekin lotuta egon daitezkeen zerbitzuak eta lurraldeak.*

Eskumeneko agintaritzek informazio hori ez argitaratzearen alde egin dezakete zerbitzu publikoko kontratu baten xedea urtean, gutxienez, bidaiaren garraiorako zerbitzu publikoko 50.000 kilometro ematea denean.

Informazioan aldaketak egingo balira argitaratu eta gero, eskumeneko agintaritzak zuzenketa bat argitaratuko du lehenbailehen. Zuzenketa hori esleipen zuzenaren edo lizitazioaren hasierako egunaren kalterik gabe ulertzen da.

Atal honetan ez da aplikatuko 5. artikuluko 5. atalean xedatzen dena”.

Manu horretan xedatutakoa betez, 2014ko maiatzaren 23an EBAO aldizkarian Buruntzaldeako eskualdean (Donostialdea mendebaldea) errepide bidezko bidaiarien hiriarteko garraiorako zerbitzu publiko erregularra eta erabilera orokorrekoa kudeatzeko kontratuaren aurretiko informazioaren iragarkia argitaratu zen.

Kontratu honen objektua da «Tolosa, N-1, Buruntzaldea eta Donostiako loturak» izeneko bidaiarien garraio publikoko zerbitzuen emakida, Diputatuen Kontseiluaren 2018ko uztailaren 10eko erabakiaz onartutako ustiapen proiektuaren arabera (uztailaren 24ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala). Proiektu hori preskripzio teknikoen agiriko I. eranskinean jaso zen.

Bada, emakida honen lizitazioari eta aipatu iragarkiari dagokienez, ustiapen-proiektuan zera adierazten da, justifikatzeko memoriaren 1.3.1. atalean:

“...Gipuzkoako emakiden maparen berrantolaketa 2015ean

El artículo 7.2 del citado Reglamento dispone:

“2. Cada autoridad competente adoptará las medidas necesarias para que, a más tardar un año antes del inicio del procedimiento de licitación o un año antes de la adjudicación directa se publiquen en el Diario Oficial de la Unión Europea los datos siguientes, como mínimo:

- a) nombre y datos de la autoridad competente;*
- b) tipo de adjudicación considerado;*
- c) servicios y territorios potencialmente afectados por la adjudicación.*

Las autoridades competentes podrán optar por no publicar esta información cuando un contrato de servicio público tenga por objeto la prestación anual de menos de 50.000 kilómetros de servicios públicos de transporte de viajeros.

En caso de que la información sufriera cambios después de su publicación, la autoridad competente publicará una rectificación lo antes posible. Esta rectificación se entiende sin perjuicio de la fecha de inicio de la adjudicación directa o de la licitación.

Este apartado no se aplicará a lo dispuesto en el artículo 5, apartado 5”.

En cumplimiento de lo dispuesto en ese precepto, el 23 de mayo de 2014 se publicó en el DOUE el anuncio de información previa del contrato de gestión del servicio público regular y de uso general de transporte interurbano de viajeros por carretera de la comarca de Buruntzaldea (Donostialdea oeste), con indicación de los datos exigidos por el Reglamento.

El presente contrato tiene por objeto la concesión del servicio público de transporte interurbano de viajeros denominada “Tolosa, N-1 y Buruntzaldea y sus conexiones con San Sebastián”, de acuerdo con el proyecto de explotación aprobado por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 10 de julio de 2018 (Boletín Oficial de Gipuzkoa de 24 de julio), que figura incorporado como anexo I al pliego de prescripciones técnicas.

Pues bien, en relación a la licitación de esta concesión y al citado anuncio, el proyecto de explotación señala lo siguiente en el apartado 1.3.1 de la memoria justificativa:

“...la reordenación del mapa concesional en Gipuzkoa



zehir emakida berriak esleituta amaitu zen. Haatik, Buruntzaldeako emakida honen kasuan, haren esleipen-prozeduran zehir izandako gorabeheren ondorioz, prozesu hura ezin izan zen arrakastaz amaitu. Hori dela eta, egun berrantolatzeko prozesua berrabiatu da zerbitzuaren aurreproiektu hau eratuz.

concluyó mediante la adjudicación de las nuevas concesiones durante el año 2015. Sin embargo, en el caso de la presente concesión de Buruntzaldea, debido a circunstancias acontecidas durante el procedimiento de adjudicación de la misma, dicho proceso no pudo concluir con éxito, razón por la que actualmente se ha reanudado el proceso de reordenación a través de la elaboración del presente anteproyecto de servicio.

(...)

(...)

Arauzko ikuspegi juridikotik lizitazio-prozedura berria, zentzu zabalean, zerbitzuaren aurreproiektua eratuz hasten da, nahiz zerbitzuari buruzko iragarkia Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean argitaratzeko bidaliz, trenbide eta errepide bidezko bidaiaren garraiorako zerbitzu publikoei buruzko 1370/2007 Erregelamenduko (CE) 7.2. artikulua aplikatuz, Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean argitaratzea eskatzen duena, eta halaxe egin zen 2014ko maiatzaren 23an. Igorritako datuak aldatu ez direnez, aitzitik, aurreproiektu honek, ikuspegi teknikitik, zerbitzua berrantolatzeko prozesua berrabiatzea suposatzen duenez, adierazitako manuan aipatutakoan oinarrituta, egindako iragarkiaren birtualtasuna mantendu egin da".

Desde el punto de vista jurídico normativo el nuevo procedimiento licitatorio, en sentido amplio, comienza a través de la elaboración del anteproyecto de servicio, así como el envío del anuncio relativo al servicio para su publicación en el Diario Oficial de la Unión Europea, en aplicación del artículo 7.2 del Reglamento (CE) 1370/2007 sobre los servicios públicos de transporte de viajeros por ferrocarril y carretera, que exige publicar en el Diario Oficial de la Unión Europea, lo que se efectuó con fecha 23 de mayo de 2014. Toda vez que los datos remitidos no se han modificado, sino que el presente anteproyecto, desde el punto de vista técnico, supone la reanudación del proceso de reordenación del servicio, en base a lo marcado en el precepto señalado, se ha mantenido la virtualidad del anuncio realizado".

Aurretiko informazioaren iragarkia lizitazio honetako datuekin alderatu ondoren ondorioztatzen denez, 1370/2007 Erregelamenduko (CE) 7.2. artikulua araber gutxienez argitaratu behar diren datuak ez dira aldatu, izan ere, lizitaziorako eskumeneko agintaritzak Gipuzkoako Foru Aldundiak izaten jarraitzen du, esleipen motak irekia izaten jarraitzen du eta lotuta egon daitezkeen zerbitzu eta lurraldeak berdina izaten jarraitzen dute.

De la comparación del anuncio de información previa con los datos de la presente licitación se desprende, efectivamente, que no han cambiado los datos que como mínimo han de ser publicados según el artículo 7.2 del Reglamento (CE) nº 1370/2007, pues la autoridad competente para la licitación sigue siendo la Diputación Foral de Gipuzkoa, el tipo de adjudicación sigue siendo el abierto y el servicio y los territorios potencialmente afectados siguen siendo los mismos.

Iragarki hartan argitaratutako beste zenbait datu aldatu egin dira, baina ez dira derrigorrez argitaratzeko datuak.

Han cambiado otros datos publicados en aquel anuncio, pero no se trata de datos de obligada publicación.

Horren ondorioz, derrigorrez argitaratzeko iragarkiaren gutxieneko edukia berdin mantentzen denez, egintza eta izapideak mantentzeko printzipioa aplikatuz (Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 51. artikulua), ez da aintzatesten iragarki hura baliogabea izan zenik, esleipen-prozedura baliogabetzean, errekurtsogileak adierazten duen eran.

En consecuencia, al mantenerse igual el contenido mínimo del anuncio sujeto a publicación preceptiva no cabe considerar, en aplicación del principio de conservación de actos y trámites (artículo 51 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas), que ese anuncio resultó nulo al anularse el procedimiento de adjudicación, como sostiene la recurrente.



Iragarkiak, aldi berean, lizitazioaren prozedura hasi baino beranduenera urtebete lehenago argitaratzearen betekizuna betetzen du. Prozedura hau hasi baino lau urte lehenago argitaratzeak ez dio inolako kalte edo babes faltarik eragin errekurtsogileari, izan ere, saileko txostenak oroitazten duenez, kontratu honen ustiapen-proiektuan berrantolatutako hiru emakidetako baten operadore izaten jarraitzen du, eta hastapenetik izan du espedientearen izapidearen berri.

Horregatik guztiagatik, aurkatzeko lehendabiziko arrazoi hau ezetsi egin behar da.

Lotetan ez banatzeari buruz

ZORTZIGARRENA.- Errekurtsogileak SPKLren 99.3. artikulua urratu egin dela alegatu du, kontratua lotetan ez banatzea arrazoitu ez izanagatik eta, bere ustez, lotetan ez banatzea eragozpena da enpresa txiki eta ertainek lizitazioan parte hartzeko aukera izan dezaten, era berean, SPKLren 1.3. artikuluan ezarritakoa urratzen delarik.

Auzitegi honek aurkatzeko arrazoi hori bera aztertu ahal izan zuen urtarrilaren 18ko 2/2019 Ebazpenean, AVITRANS enpresak ipinitako 6/2018 errekurtsu berezian emana kontratazioa arloan. Horrenbestez, hartako zazpigarren zuzenbidezko oinarrian aipaturikoa errepikatzen dugu.

Izan ere, SPKLren 99.3 artikulua arabera, kontratuaren izaerak edo objektuak horretarako bidea ematen duten guztietan, atal guztiak modu independentean gauza daitezela aurreikusi beharko da, sortaka zatituta, salbu eta hori horrela ez egiteko arrazoi egokiak daudenean – espedientearen behar bezala zehaztu beharko dira–. Artikulu horretan jarraitzen du esanez, nolahi ere, eta kontratuaren objektua sortaka ez zatitzea justifikatzeko, baleko arrazoitzat joko dela kontratuaren objektuan jasotako prestazioak modu independentean emateak zailtasunak ekartzea kontratua ikuspuntu teknikitik zuzen egikaritu dadin; edo kontratua zuzen ez egikaritzeko arriskua etortzea haren objektuaren izaeratik,

El anuncio cumple igualmente el requisito de haberse publicado, a más tardar, un año antes del inicio del procedimiento de licitación. El hecho de haberse publicado cuatro años antes del inicio de este procedimiento no ha causado ningún perjuicio o indefensión a la recurrente, pues, como recuerda el informe del departamento, continúa siendo la operadora de una de las tres concesiones reordenadas en el proyecto de explotación del presente contrato, y ha estado informada desde el principio de la tramitación del expediente.

Por todo ello, este primer motivo de impugnación debe ser desestimado.

Sobre la no división en lotes

OCTAVO.- La recurrente alega la vulneración del artículo 99.3 LCSP por no haberse motivado la no división en lotes del contrato, y considera que la falta de división en lotes es un obstáculo a la participación de las pequeñas y medianas empresas en la licitación, vulnerándose asimismo lo establecido en el artículo 1.3 LCSP.

Este Tribunal ya tuvo ocasión de analizar este mismo motivo de impugnación en la Resolución 2/2019, de 18 de enero, dictada en el recurso especial en materia de contratación 6/2018 interpuesto por AVITRANS, por lo que reiteraremos lo dicho en su fundamento de derecho séptimo.

El artículo 99.3 LCSP dispone que siempre que la naturaleza o el objeto del contrato lo permitan deberá preverse la realización independiente de cada una de sus partes mediante su división en lotes, a menos que existan motivos válidos debidamente justificados en el expediente. Y añade que en todo caso, a efectos de justificar la no división en lotes del objeto del contrato, se considerará motivo válido el hecho de que la realización independiente de las diversas prestaciones comprendidas en el mismo dificultaría la correcta ejecución del contrato desde el punto de vista técnico; o bien que el riesgo para la correcta ejecución proceda de la naturaleza del objeto del contrato, al implicar la



zeren eta berekin baitakar prestazioak emateko koordinatu beharra eta hori ezinezko gerta baitaiteke sortaka zatitzearen eta hainbat kontratistaren artean gauzatzearen ondorioz. Bi egoera horiek, kasuan-kasuan, behar bezala justifikatu beharko dira espedientean.

Bereziki zerbitzu emakidako kontratuentzat, SPKLko 285.1.a) artikulua ezartzen du baldintza agiriak kontratuaren objektua definitzeko dutela, eta, atalak sortatan banatuta, atal haietako bakoitza bere aldetik gauzatu ahal izatea aurreikusi beharko dutela, prestazioaren eraginkortasuna murriztu gabe, 99.3 artikuluan xedatutakoari jarraituz, konkurrentzia libre sustatzeko xedez.

Aurrean esan dugun bezala, kontratu honen objektua da «Tolosa, N-1, Buruntzaldea eta Donostiako loturak» izeneko bidaiarien garraio publikoko zerbitzuen emakida, Diputatuen Kontseiluaren 2018ko uztailaren 10eko erabakiaz onartutako ustiapen proiektuaren arabera. Proiektu hori preskripzio teknikoan agiriko I. eranskinean jaso zen.

Ustiapen proiektuaren justifikazio memoriako 1.2 apartatuak, «Gipuzkoako kontzesio-mapa berrantolatzea», honela dio:

«Ustiapen Plan honetan proiektatzen den zerbitzuaren berrantolatzea testuinguruan jarri behar da, Gipuzkoako kontzesio-maparen berrantolaketa globalaren bitartez.

Une honetan, amaitu gabe dagoen berrantolaketan —honen bitartez Gipuzkoako kontzesio-mapa berria osatuko da— Buruntzaldean eta Donostiarekin egiten dituzten konexioetan zerbitzua eskaintzen duten kontzesioak barne hartzen dira. Berrantolaketa hori ezin izan zen behar bezala amaitu, aurrerago adieraziko dugun esleipen-prozeduran zehar izandako gertakarien ondorioz.

Hortaz, zerbitzu mota honen erabiltzaile potentzialak diren herritarrengan eragin handiena duten alderdiak lantzea da helburua. Zehazki, proiektatutako berrantolaketan funtsezko bi alderdi nabarmentzen dira: zerbitzuen analisi tekniko operatiboa eta Mugi sistemaren bitartez tarifaintegrazioa gauzatzea.

(...)

necesidad de coordinar la ejecución de las diferentes prestaciones, cuestión que podría verse imposibilitada por su división en lotes y ejecución por una pluralidad de contratistas diferentes; extremos ambos que deberán ser, en su caso, justificados debidamente en el expediente.

En particular, para el contrato de concesión de servicios el artículo 285.1.a) LCSP establece que los pliegos definirán el objeto del contrato, debiendo prever la realización independiente de cada una de sus partes mediante su división en lotes, sin merma de la eficacia de la prestación, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 99.3, con la finalidad de promover la libre competencia.

Como ya se ha señalado, el objeto de este contrato es la concesión del servicio público de transporte interurbano de viajeros denominada “Tolosa, N-1 y Buruntzaldea y sus conexiones con San Sebastián”, de acuerdo con el proyecto de explotación aprobado por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 10 de julio de 2018, que figura incorporado como anexo I al pliego de prescripciones técnicas.

En el apartado 1.2 de la memoria justificativa del proyecto de explotación, titulado “Reordenación del mapa concesional de Gipuzkoa”, puede leerse lo siguiente:

“Es necesario contextualizar la reordenación del servicio que se proyecta en este Plan de Explotación con la reordenación global del mapa concesional de Gipuzkoa.

En estos momentos la reordenación pendiente, y con la que se completará el nuevo mapa concesional de Gipuzkoa, es la que incluye las concesiones que prestan servicio en Buruntzaldea y en sus conexiones con San Sebastián, que por cuestiones acontecidas durante el procedimiento de adjudicación que se indican más adelante no pudo concluir con éxito.

Así, se trata de abordar aquellos aspectos que más incidencia presentan en la ciudadanía que son los potenciales usuarios de este tipo de servicios. En concreto, destacan dos aspectos fundamentales en la reordenación proyectada: el análisis técnico operativo de los servicios y la materialización de la integración tarifaria a través del sistema Mugi.

(...)



Azken batean, zerbitzuaren berrantolaketa honen eta eskaintzaren arrazionalizazioaren bitartez, honako hau lortu nahi da: zerbitzuen koordinazio hobea —zerbitzu horiek linea diferenteen artean autobus-aldaketak eta konexioak egitea uzten dutenean—, trafiko-debekuak ezabatzea, eta garraio-operadore bakar batean bitartekoak hobeto antolatzea. Horrek zerbitzuak eskaintzeko kostuak murriztea ekarriko du, lineen artean errekurtsoak aldatuz eta partekatuz, eta zerbitzuaren kalitatea hobetuko da.»

Eta memoria horretan bertan, 1.3.2 apartatuan, «Zerbitzuaren hobekuntza», honela dio:

